

Diru-iturriak

Lehendabiziko diru sarrerak aktiboen salmentetatik datoz, hau da, bezeroak zerbait erosteagatik. Honetan bi sarrera mota desberdinduko litzateke; alde batetik, aldi bakarreko salmenta (bezeroak noizbait erosten du) eta salmenta errepikariak, hau da, bezero jakin batzuek denboraldi jakin batean behin erosten dute, adibidez, Martinez andrea hilabetean behin arropa erosketa handi bat egiten du. Laburbilduz, aktiboen salmentek, sarreren %60a suposatuko lukete.

Bestalde, gurekin lan egiten duten dendek beraien sarreren ehuneko bat ematen digute, batez ere, gure webgunean erosteagatik. Hau da, salmenta bakoitzeko gutxi gorabehera %10 jasotzen dugu (dendaren arabera) eta horrek gure sarreren %10,1-a da.

Publizitateari dagokionez, zenbait enpresa edo pertsona famatuak, gure webgunean edo aplikazioan iragartzeko aurrez aurre hitzartutako (kontsultatu ahal diren tarifak) diru kantitate jakin bat ordaintzen digute. Batez ere, gure webgune edo aplikaziotik erosi ahal diren dendetan ordaintzen digute gehien, hau da, hauetatik lortzen ditugu diru sarrera handienak. Sail honek, gure diru-iturrien %22-a da.

Azkenik, bestelako zerbitzuek %7-a dira gure sarreretan. Sail honetan, besteak beste, bazkide txartela dago, gure bezeroek txartela hau egiteko aukera daukate, honekin, deskontuak, ofertak eta bestelako iragarkiak jasoko dituzte, horregatik, hau nabarmentzen dugu hemen.

Diru sarrerak

